

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Proiektuaren arrakasta bermatzeko, hainbat funtsezko baliabide beharrezkoak dira. Lehenik eta behin, baliabide teknologikoak funtsezkoak dira: aplikazioaren garapena, mantentzea eta etengabeko eguneratzea ahalbidetuko duten azpiegitura digitalak, zerbitzariak eta software egokia. Horri esker, erabiltzaileei esperientzia egonkor, segurua eta kalitatezkoa eskaini ahal izango zaie.

Horrez gain, eduki kultural eta musikalak dira proiektuaren oinarria, eta horiek bermatzeko ezinbestekoa da euskal artistekin eta taldeekin harreman estu, iraunkor eta konfiantzazkoa izatea. Edukien jarraitutasuna eta aniztasuna ziurtatzeko. Bestalde, giza baliabide konprometituak behar dira, bai arlo teknikoan bai kudeaketa, komunikazio eta eduki-sorkuntzan, proiektuaren balio etiko, sozial eta kulturalekin bat datozen pertsonak izanik.

Era berean, baliabide ekonomikoak ezinbestekoak dira hasierako inbertsioa, zabalkundea eta jasangarritasuna bermatzeko, bereziki laguntza publikoen, dirulaguntzen, babesleen eta lankidetzaren instituzionalen bidez. Azkenik, sare sozial eta komunitario sendoa baliabide klabe bezala hartzen da: erabiltzaile aktiboak, artista kolaboratzaileak eta elkarte laguntzaileak barne hartzen dituen ekosistema batek aplikazioaren hazkundea, fideltasuna eta epe luzeko bideragarritasuna ahalbidetuko ditu. Horrela sinbiosia sortuko genuke bai artisten, bai taldeen eta bai instituzio publikoen artean gurekiko. Behin lehengo baliabideak intelaktulak sortuta edo eukita askoz errezago garraiatu eta zabaldu genezake gure proiektua.

Bai baliabide ukigarriak, besteak beste, azpiegitura teknologikoa edo musika fisikoa, eta bai baliabide ukiezinak, esate baterako, kultura arloa eta artistekin eukitako kontaktuak, modu koordinatuan erabiltzeak bermatzen du aplikazioaren iraunkortasuna, erabiltzaileen fidelizazioa eta euskal kultura eta kontzientzia kritikoaren zabalkundea modu eraginkorrean sustatzea.